

AURKIBIDEA

ERANSKINAK

1. Eranskina: Galdetegia	29
2. Eranskina: Galdetegiaren 1. atalaren erantzunak	37
3. Eranskina: Galdetegiaren 2. atalaren erantzunak	39
4. Eranskina: Galdetegiaren 3. atalaren erantzunak	40
5. Eranskina: Galdetegiaren 4. atalaren erantzunak	56
6. Eranskina: Galdetegiaren 5. atalaren erantzunak	70
7. Eranskina: Galdetegian parte hartzeko baimen informatua	76

ERANSKINAK

1. ERANSKINA: GALDETEGIA

1.1. Parte hartzailearen datu orokorrak

<ul style="list-style-type: none"> • Lanbidea 	
<ul style="list-style-type: none"> ○ Haur Hezkuntzako irakaslea 	<ul style="list-style-type: none"> ○ Lehen Hezkuntzako irakaslea
<ul style="list-style-type: none"> • Formakuntza (hautatu aukera posible guztiak) 	
<ul style="list-style-type: none"> ○ Haur hezkuntzako gradua ○ Lehen Hezkuntzako gradua ○ Pedagogiako gradua ○ Psikologiako gradua 	
<ul style="list-style-type: none"> • Adina 	
<ul style="list-style-type: none"> • Generoa ○ Emakumea ○ Gizona ○ Beste bat 	
<ul style="list-style-type: none"> • Gaur egun lan egiten duzun eskola mota 	
<ul style="list-style-type: none"> ○ Publikoa ○ Pribatua ○ Kontzertatua 	
<ul style="list-style-type: none"> • Irakaskuntzan lanean daramazun urteak 	
<ul style="list-style-type: none"> ○ 2 urte baino gutxiago ○ 2-5 urte bitartean ○ 5-10 urte bitartean ○ 10- 20 urte bitartean ○ 20 urte baino gehiago 	

1.2. Irakasleen auto-ezagutza pertsonal maila

1) Zure auto-ezagutza pertsonalarekin erlazionatutako zerbait egin duzu?			
a) Bai.			
- Zer?			
Kurtso edo tailer bat (zehaztu zeri buruzkoa izan den).	Terapia motza (6 hilabete baino gutxiago duena).	Terapia jarraitua (denboran zehar, urte bat baino gehiago, mantendu dena).	Beste bat (zehaztu zein).
b) Ez			

1.3. Irakasleek *haien burua ezagutze*ari buruz duten iritzia

Gaiari ematen dioten garrantzia

Bai...	Ez...
Zergatik egin duzu/egin zenuen?	Zergatik ez duzu egin?
<ul style="list-style-type: none"> - Nire burua hobeto ezagutzeko. - Egoera zail batengatik. - Beste bat (zehaztu zein) 	<ul style="list-style-type: none"> - Ez dut beharrezkoa ikusi. - Beldurrarengatik. - Pausua ez emateagatik. - Beste bat (zehaztu zein)
	Egitea gustatuko litzaizuke?
	<ul style="list-style-type: none"> - Bai. - Ez.

- 2) Irakasle bezala, *analisi pertsonala* egitea eta zure iraganaren istorioa ezagutzea garrantzitsua dela uste duzu?
- a) Bai.
 - Beste lanbide bat duen pertsona batentzat baino garrantzitsuagoa dela uste duzu?
 - Bai
 - Azaldu zure erantzunaren zergatia.
 - Ez
 - Azaldu zure erantzunaren zergatia.
 - b) Ez.
 - Azaldu zure erantzunaren zergatia.

Ikuspuntua

- 3) Aspektu hauen artean zeintzuk uste duzu garrantzitsuak direla irakasle baten *analisi pertsonalerako*? (aukeratu nahi dituzun guztiak)
- Bere buruari mota desberdinetako galderak planteatzeko gai izatea.
 - Norberaren kontzientzia hartzea eta norberaren errealitatea.
 - Iraganeko esperientziak eta bizipenak esploratzea.
 - Irakaskuntza jarduna betetzeko arrazoiez, nahiez eta errepresioez (aurreiritziez) jabetzea.
 - Norberaren haurtzaroaren inguruan hausnartzea.
 - Momentuan irakasle izateko duen interesaren eta motibazioaren inguruan hausnartzea.
- 4) Zure ustez (zure esperientziagatik) hezitzaile lanbideak norberaren haurtzaroarekin aurrez aurre jartzea suposatzen du?
- a) Bai
 - b) Ez
 - Zergatik?

1.4. Irakasleen norbere kontzientzia, pertzepzioa eta onarpena

Kontzientzia eta pertzepzioa

Hurrengo hiru galderetan 1etik 5erako puntuazioa proposatzen da; zure adostasun maila adierazteko.

5) Zure haurtzaroko esperientziak eta barne-gatazkak ezagutzen dituzula esango zenuke?

Erabat desados	1	2	3	4	5	Erabat ados
----------------	---	---	---	---	---	-------------

6) Zure haurtzaroan bizi izandako zenbait gauza zure barnean gordeta eta ebatzi gabe dituzula uste duzu?

Erabat desados	1	2	3	4	5	Erabat ados
----------------	---	---	---	---	---	-------------

7) Gauza horiek zure irakaskuntza baldintzatzen dutela uste duzu?

Erabat desados	1	2	3	4	5	Erabat ados
----------------	---	---	---	---	---	-------------

8) Zertan uste duzu baldintzatzen zaituztela? (azaldu)

9) Bokazioa edo lanbidearen hautaketa iraganean bizi izandako esperientziekin edo oroitzapenekin erlazionatuta dagoela esan ohi da; zure kasuan, irakasle izateko arrazoa iraganeko bizipenekin erlazionatuta dagoela esango zenuke?

a) Bai.

– Zeinekin? (azaldu)

b) Ez.

– Orduan, zergatik hautatu zenuen?

- Ez nekien zer ikasi.
- Erraza delako.
- Gradu bat izateko.

- “umeak gustatzen zaizkidalako”.
- Beste bat (azaldu).

Hemendik aurrera, markatu 1etik 5era galdera bakoitzaren erantzuna, zure adostasun mailaren arabera, 1 guztiz aurka eta 5 guztiz ados izanez.

<i>1. Guztiz aurka</i>	<i>2. Nahikoa aurka</i>	<i>3. Ez ados ez aurka</i>	<i>4. Nahikoa ados</i>	<i>5. Guztiz ados</i>
------------------------	-------------------------	----------------------------	------------------------	-----------------------

Onarpena

10) Egun iraganean izan nintzen haurraz harro nago.

1. Guztiz aurka
2. Nahikoa aurka
3. Ez ados ez aurka
4. Nahikoa ados
5. Guztiz ados

11) Nire burua ondo ezagutzen dut.

1. Guztiz aurka
2. Nahikoa aurka
3. Ez ados ez aurka
4. Nahikoa ados
5. Guztiz ados

12) Nire izaeraren alde ilunak ezagutzen ditut.

1. Guztiz aurka
2. Nahikoa aurka
3. Ez ados ez aurka
4. Nahikoa ados
5. Guztiz ados

13) Nire izaeraren alde ilunak onartzen ditut.

1. Guztiz aurka

2. Nahikoa aurka
3. Ez ados ez aurka
4. Nahikoa ados
5. Guztiz ados

14) Nire bizi-esperientziaren alde ilunak ezagutzen ditut.

1. Guztiz aurka
2. Nahikoa aurka
3. Ez ados ez aurka
4. Nahikoa ados
5. Guztiz ados

15) Nire bizi-esperientziaren alde ilunak onartzen ditut.

1. Guztiz aurka
2. Nahikoa aurka
3. Ez ados ez aurka
4. Nahikoa ados
5. Guztiz ados

1.5. Irakasleen gaitasun emozionalak

Ikasleekiko harremana eta erregulazio emozionala

1) Ia beti lasai egoten naiz ikasle batekin haserretzen naizenean.

1. Guztiz aurka
2. Nahikoa aurka
3. Ez ados ez aurka
4. Nahikoa ados
5. Guztiz ados

2) Ikasleen jarrera gustuko ez dudanean edo nire izaerarekin bat egiten ez duenean, nire emozioak eta sentimenduak modu osasungarrian maneiatzeko gai naiz.

Ez zaio erreferentzia egiten ikasleen jokabide oldarkor edo disruptiboiei. Adibidez, ikasle batek beste batekiko inbidia adierazten duenean, besteak nota hobea atera duelako.

1. Guztiz aurka
2. Nahikoa aurka
3. Ez ados ez aurka
4. Nahikoa ados
5. Guztiz ados

3) Lasaitasuna mantentzen dut ikasleen portaera txarrera zuzentzen naizenean.

1. Guztiz aurka
2. Nahikoa aurka
3. Ez ados ez aurka
4. Nahikoa ados
5. Guztiz ados

4) Gelako giroa aztoratua (zarata handia, ikasleak haien artean hitz egiten arreta jarri gabe...) denean, eta hura maneiatzen saiatzen naizenean, jardun aurretik pentsatzen dut.

1. Guztiz aurka
2. Nahikoa aurka
3. Ez ados ez aurka
4. Nahikoa ados
5. Guztiz ados

5) Sarritan gogaitu egiten naiz ikasgelan, eta ez dut ulertzen zergatik.

1. Guztiz aurka
2. Nahikoa aurka
3. Ez ados ez aurka
4. Nahikoa ados
5. Guztiz ados

6) Sarritan ikasleekin haserretzen naiz probokatzen nautenean.

1. Guztiz aurka
2. Nahikoa aurka
3. Ez ados ez aurka
4. Nahikoa ados
5. Guztiz ados

7) Batzuetan ikasleekin zorrotzegia izateko beharra sentitzen dut; errieta botatzeko edo txarto egiten dutena esateko.

1. Guztiz aurka
2. Nahikoa aurka
3. Ez ados ez aurka
4. Nahikoa ados
5. Guztiz ados

8) Ikasle batzuekin pazientzia gutxiago dut beste batzuekin baino.

1. Guztiz aurka
2. Nahikoa aurka
3. Ez ados ez aurka
4. Nahikoa ados
5. Guztiz ados

9) Ikasle batzuei arreta handiagoa eskaintzen diet beste batzuei baino. (kasu honetan ez zaie erreferentzia egiten laguntza/hezkuntza behar berezia duten ikasleei)

1. Guztiz aurka
2. Nahikoa aurka
3. Ez ados ez aurka
4. Nahikoa ados
5. Guztiz ados

2. ERANSKINA: GALDETEGIAREN 1. ATALAREN ERANTZUNAK

- Lanbidea

Lanbidea	Irakasle kopurua	Ehunekoa
Lehen Hezkuntzako irakaslea	50	%52,1
Haur Hezkuntzako irakaslea	46	%47,9
Totala	96	%100

1. Taula. Parte hartzaileen lanbideari dagokion banaketa.

- Formakuntza

Formakuntza	Irakasle kopurua	Ehunekoa
Lehen Hezkuntzako gradua	67	%69,8
Haur Hezkuntzako gradua	53	%53
Pedagogiako gradua	11	%11
Psikologiako gradua	3	%3

2. Taula. Parte-hartzaileen formakuntzari dagokion banaketa.

- Adina

Adin tartea	Irakasle kopurua	Ehunekoa
23 - 33	36	%37,2
33 - 43	33	%35,1
43 - 53	11	%11,7
53 - 63	16	%16
Totala	96	%100

3. Taula. Parte-hartzaileen adinari dagokion banaketa.

- Generoa

Generoa	Irakasle kopurua	Ehunekoa
Emakumea	85	%88,5

Gizona	11	%11,5
Beste bat	0	0
Totala	96	%100

4. Taula. Parte-hartzaileen generoari dagokion banaketa.

- Eskola mota

Eskola mota	Irakasle kopurua	Ehunekoa
Publikoa	31	%32,3
Kontzertatua	65	%67,7
Totala	96	%100

5. Taula. Parte hartzaileek lan egiten duten eskola motari dagokion banaketa.

- Irakaskuntzan lanean daramaten urteak

Irakaskuntzan lanean daramaten urteak	Irakasle kopurua	Ehunekoa
2 urte baino gutxiago	14	%14,6
2-5 urte bitartean	21	%21,9
5-10 urte bitartean	12	%12,5
10-20 urte bitartean	27	%28,1
20 urte baino gehiago	22	%22,9
Totala	96	%100

6. Taula. Parte hartzaileek irakaskuntzan lanean daramaten urteei dagokion banaketa.

3. ERANSKINA: GALDETEGIAREN 2. ATALAREN ERANTZUNAK

1) Zure auto-ezagutza pertsonalarekin erlazionatutako zerbait egin duzu?

	Irakasle kopurua	Ehunekoa
Bai	58	% 60,4
Ez	38	% 39,6
Totala	96	% 100

2) Zer egin duzu?

	Irakasle kopurua	Ehunekoa
Kurtso edo tailer bat (zehaztu zeri buruzkoa izan den).	19	% 32,8
Terapia motza (6 hilabete baino gutxiago iraun duena).	9	% 15,5
Terapia jarraitua (denboran zehar, urte bat baino gehiago, mantendu dena).	19	% 32,8
Beste bat (zehaztu zein).	11	% 19
Totala	58	% 100

4. ERANSKINA: GALDETEGIAREN 3. ATALAREN ERANTZUNAK

4.1. Gaiari ematen dioten garrantzia

ANALISI PERTSONALA EGIN DUTENAK

1) Zergatik egin duzu/zenuen?

	Irakasle kopurua	Ehunekoa
Nire burua hobeto ezagutzeko.	27	%46,55
Egoera zail batengatik.	18	%31
Beste bat (zehaztu zein)	13	%22,45

2) Irakasle bezala, *analisi pertsonala* egitea eta zure iraganaren istorioa ezagutzea garrantzitsua dela uste duzu?

	Irakasle kopurua	Ehunekoa
Bai	56	%96,55
Ez	2	%3,45

- Azaldu zure erantzunaren zergatia

Parte-hartzaileen hitzak

- *Zure bizitzan jokaera batzuk hausnartzen eta zergatik gertatzen diren ulertzen laguntzen dizu. Gure lekua topatzen, beste begirada bat izaten; errealitatea begiratzeko modu bat baino gehiago daudela erakusten dizu.*
- *Zer izan garen, zer garen eta izango garena erlazionatuta dago. Gehi norberak egiten duen kudeaketa.*
- *Ez baduzu zure burua ezagutzen ezin duzu ondo kudeatu.*
- *Pertsonekin lan egiten dugunez, orduan eta geure burua hobeto ezagutu, prestatuago egongo gara besteei ulertu eta laguntzeko.*
- *Gure istorioak gu izatea dakarrelako eta gure lanean ezinbestekoa ikusten dut auto-ezagutza.*
- *Nora joan jakiteko, nondik gatozen jakin behar dugulako.*
- *Gure esperientziek baldintzatzen gaituzte.*

- *Horrek emozioen kudeaketan laguntzen du.*
- *Norberaren haurtzaroa ulertzeak bestearen gorputzean jartzea laguntzen du.*
- *Ezinbestekoa! Bai irakasle bezala eta bai pertsona bezala. Pertsona bezala ezagutu, ulertu eta onartzen zaren heinean askoz ere begirada zabalagoa duzu ikasleengan eta beste errealitateetan. Gainera, norberaren ezagutzak askoz ere gehiago lagunduko zaitu egunerokoan, eta baita lanean ere.*
- *Gure ibilbidea ezagutzeko.*
- *Gure burua eta zergatik garen ezagututa, haurrekin aritzen garen orduan, gure emozioak eta sentimenduak identifikatzeko gai gara. Modu horretan gure emozioak onartu eta horiekin aritzen ikasten hastea oso garrantzitsua iruditzen zait, kontziente izanik emozio horietaz. Askotan haur mugitu batek emozio asko pizten dizkigu barruan eta normalean emozio horiek (ez direla ez onak ez txarrak) erantzun desegoki bat ematea (zigortu, oihukatu, haserretu...) eragiten digute helduoi. Emozio hori identifikatu eta onartu ezker pixkanaka ikasiko dugu erantzun lasaiago eta egokiagoak ematen. Modu horretan, haurren garapen prozesuan "gure horretatik" ahalik eta gutxien eransten saiatuko gara.*
- *Umeak hobeto ulertzeko eta enpatia gehiago izateko.*
- *Norbere istorio pertsonalak eragiten eta eraikitzen duelako egun daukagun jokabide, balore eta izaera bera. Jaso duguna gara eta joera naturala da bizi izan dugun hori erreproduzitzea. Honi aurre egiteko modu bakarra auto-ezagutza, kritikotasuna eta aldatzeko prestutasuna izatea da, nire ustez.*
- *Gure egoeraz kontziente izateak besteen egoerak era erlatiboagoan ikusten laguntzen digu, enpatia garatzen dugu.*
- *Askotan gara garen modukoak gure bizitzan izan ditugun esperientziengatik edo gertatu zaizkigun egoerengatik.*
- *Gaur egungo errealitatea interesatzen zait, analisiak teoriak baino ez dira.*
- *Norbera ezagutzea funtsezkoa da besteak ulertzeko.*
- *Gure eguneroko jarreretan eragin zuzena dutelako.*
- *Nire burua hobeto ezagututa, besteenganako enpatizatze maila handiago izango delako, eta nire jarrera ere landu ahalik dut.*
- *Bestea ezagutzeko tresnak ematen dizkidalako.*
- *Lehenengo zure burua ondo ezagutu behar duzu ikasleekin lanean aritzeko.*
- *Zure egitekoak hobeto ulertu eta aldatu, edo ez egiteko, edota zure patroiak*

aztertzeko.

- *Gaur egun garena ulertzeko eta onartzeko, gure beharrak ezagutu eta kudeatzeko.*
- *Nire jarrerak eta erreakzioak baldintzatzen dituelako.*
- *Zure haurtzaroko harreman patroiak erreproduzitzen dituzulako.*
- *Bidean aurrera jarraitzeko ezinbestekoa delako.*
- *Emozioen inguruko ikastaroak izan ziren, baliogarriak guztiz alor pertsonalean zein profesionalean.*
- *Gure auto-ezagutzan lan egitea ondorio onuragarriak ditu egunerokotasunean eta gure lanean.*
- *Gure burua ezagutzea ikasleen beharrei erantzuteko baliagarria izan daiteke; haiek ulertzen lagundu ahal digulako.*
- *Norbere zailtasunak antzemateko tresna da. Besteen sufrimendua eta zailtasunak hobeto antzemateko balio digu. Enpatia gehiago izateko.*
- *Zure beldurrak ikasleei ez transmititzeko, adibidez.*
- *Norberaren bizipenak orain garenaren ondorioa da. Izaera eta bizipenek garena baldintzatzen dute. Bizi izan duguna eta nola bizi izan dugun, "motxila" batean eramango dugu, oraingo emozioen oinarria da. Horregatik oso garrantzitsua da gure iraganeko istorioa ezagutzea, oraina hobeto ezagutzeko, nor garen jakiteko, gure beldurrak zeintzuk diren, alai eta min ematen diguten gauzak, gure indarrak eta ahuleziak ezagutzeko... Gure lanera eramanda, umeak ikuspuntu neutro batetatik lagundu ahal izateko, lehenengo gure istorioa jakin behar dugu. Gure bizipenen menpe baldin bagaude, gure ikuspuntutik bakarrik begiratu ahal izango baititugu.*
- *Nire ustez gure egunerokotasunean, gure bizitza pertsonalean ditugun arazo/edozein egoerak gure izateko era nolakoa den zehazten digu. Nahiz eta eskolan hori kanpoan utzi behar dugun, gure identitatea gure bizipenekin erlazionatuta dago.*
- *Norbere burua ezagutzea garrantzitsua da umeak ezagutzeko eta auto-kontrola izateko haiekin harremanetan jartzeko.*
- *Umekin lan egiteko pertsona orekatua izan behar duzu, bere emozioak gestionatzen dakiena eta honela, besteen emozioen zergatik ulertu eta kudeatzen laguntzeko.*
- *Oso garrantzitsua dela iruditzen zait nire bizipenak eta emozioak ulertzea, hauek negatiboak direnean, ahal den neurrian haurrei ez transmititzeko. Eta norbera*

- ezagutzea, besteak ondo ezagutzeko eta maitatzeko.*
- *Gaur nola garen ulertzeko eta hobetzeko gure sustraietara bueltatu behar gara.*
 - *Onaiño iristeko egindako bidea, nire iraganaren ondorio delako.*
 - *Hobeto ezagutzen banaiz, irakasle hobeagoa izango naizelako.*

 - *Lanerako lagungarria izan daitekeelako.*
 - *Gure haurtzaroaren eta bizi izandakoaren arabera, umeekin harremantzen garelako.*
 - *Umetatik hasten gara auto-estima eta gure identitatea eraikitzen. Irakaslearena kaltetua badago edo kaltetua egon bada haurretan, zaila izango da bere ikasleei beharrezko tresnak ematea hauek ere egoera zaili aurre egin diezaieten.*
 - *Norberaren bizipenak ez proiektatzeko.*
 - *Pertsonak gara irakasle aurretik eta ondorioz bakoitzak bere erronkak, frustrazio, bizipen, beldurrak, usteak ditu. Oso garrantzitsua iruditzen zait gelara sartzen zarenean zure barruko "mierda" guztia kanpoan uztea eta haurrak hortaz babestea. Adibidez, niri haurrek mina hartzea beldurtzen badit, psikomotrizitate gelara noanean ezin diet debekatu andamiotik salto ez egitea. "Arazoa" nire baitan dago, beraz lanketa bat egin beharko dut horrekin haurrek ez dutelako beldur horren errurik. Argi eta garbi zure izaerak kutsua emango dio zure irakasteko moduari eta zuretzako garrantzitsuak diren edukiak landuko dituzula (HHn batez ere), baina kontziente izan behar dugu gu nolakoak garen eta zer den lortu nahi duguna, eta zer den zure eta zer haurrena.*
 - *Jakiteko desberdintzen zer den nirea eta bestearena, ez nahasteko.*
 - *Nire nortasuna nola eraiki dudak jakiten laguntzen didalako.*
 - *Bizitako esperientzien arabera, aldatu egiten da zure irakasteko metodologia. Hasieran, unibertsitatean ikasitakoa freskoago duzu eta gero dena mekanikoago egiten zaizu, baina batzuetan atzera begiratu behar da eta pentsatu zer ari zaren egiten eta zer hobetu dezakezun.*
 - *Norberak bere iragana ezagututa oraina hobeto ulertu dezake. Arazo pertsonal asko iraganeko gertaerekin lotuta egon daitezke, horiek askatzeak laguntzen du oraina hobeto ulertu eta bizitzen.*
 - *Zurea izaerak lanean influentzia handia duelako.*
 - *Beti da garrantzitsua.*

- *Nik uste dut denok egin behar dugula hori.*
- *Umeen aurrean garen bezalakoak agertzen garelako eta horrek askotan hausnarketa bat behar duelako. Zer egiten dugun, nola egiten dugun, noiz egiten dugun, zer nolako jarrera azaltzen dugun beste aurrean, gure beldurrak, ...*
- *Gure buruarekin lasai egotea, gure mugak ezagutzea eta nola funtzionatzen dugun ondo jakitea berebizikoa da gure ikasleei ahalik eta irakaskuntzarik onena eman ahal izateko eta haien beharrei erantzuteko.*
- *Orokorrean garrantzitsua dela uste dut.*
- *Irakaskuntzan hasi nintzenean 22 urte nituen, gurasoen etxean bizi nintzen ... Orain aldiz, adinak nabarmen egin du gora, ikastetxe ezberdin asko ezagutu ditut, etxe ezberdinetatik pasatu naiz, familia sortua daukat (horrek dakarren guztiarekin)...*
- *Hezkuntza bi norabideetan eman dadin.*
- *Jakin beharko dugula zergatik egin ditugu gauza batzuk eta zergatik beste batzuk baztertu ditugu momentu zehatz baten. Denboraldi laguntzen digu ikuspegi Zabala bat izatea. Iraganari begiratzeak laguntzen digu gure esperientzia gastatzen.*
- *Gure lanean formazioan egotea garrantzitsua ikusten dudalako, beti egoera berezi eta berriak ikusi behar ditugulako.*
- *Funtsezkoa da nire ustez haurrekin konektatzeko, haien bizipenak ulertzeko.*

3) Beste lanbide bat duen pertsona batentzat baino garrantzitsuagoa dela uste duzu?

	Irakasle kopurua	Ehunekoa
Bai	29	%50
Ez	29	%50

- Azaldu zure erantzunaren zergatia

Parte-hartzaileen hitzak

- *Garrantzia norberak ematen du. Denontzat baliogarria izan daiteke, denok pertsonak izaten jakin behar baitugu.*
- *Haurrekin lan egiten dugu eta, nahitaez, eredu bilakatzen gara. Ezin ditugu gure traumak, segurtasun faltak, akatsak...gaizki kudeatu.*
- *Ezinbestekoa da edozeinentzat, norbere mugak, zailtasunak eta gaitasunak,*

emozioak etab. ezagutu barik, seguru edozein lan ez dela ondo betetzen.

- *Edozein lanbiderako egokia delako.*
- *Denontzat beharrezkoa da.*
- *Lanbide guztietarako da garrantzitsua auto-ezagutza, baina hurrekin, beren familiekin eta modu kooperatiboan lan egin behar dugunez, gure lanerako ezinbestekoa da.*
- *Pertsonak hazten laguntzen dugulako.*
- *Ez dakit garrantzitsuagoa den ala ez, baina bai oso garrantzitsua. Pertsonekin eta hauen emozioekin egiten dugulako lan. Baita familiekin ere. Lan hau oso pertsonala da, eta pertsonala den heinean zure pertsona lantzea garrantzitsua da. Gainera, Haur Hezkuntzan oinarritzkoa landu beharko litzatekeela uste dut, emozioak, norberaren auto-estimua... eta horretarako ezinbestekoa da.*
- *Lanbide guztietan beharrezkoa da.*
- *Umeen etorkizuneko ongizatea gure eskuetan dagoelako (neurri handi batean).*
- *Denontzat da garrantzitsua. Denok gara hezitzaileak, profesional edo irakasle ez bagara, gure etxean, familiakoekin, lagunekin, inguruko hurrekin, semealabekin... Hortaz, garenaz jabetzeak eta gure jokabideez konturatzeak, gure hautuak eta eguneroko jarduteko modua auto-erregulatzen lagun diezaguke. Ezinbestekoa iruditzen zait bizitzarako.*
- *Guztiontzako da garrantzitsua.*
- *Iraganak, umea zaren garaiak, garrantzia dauka etorkizunean. Batez ere erreferentzia positiboak izan badituzu edo ez.*
- *Pertsonekin lan egiten dugulako.*
- *Denean duelako eragina.*
- *Denontzat baliogarria dela uste dut.*
- *Jendarte batean bizi gara, enpatizatzeke eta bestea entzuteko gaitasuna denontzat da garrantzitsua.*
- *Pertsonekin lana egiten dugulako eta haien garapen pertsonalean eragin handia dugulako.*
- *Edozein pertsona edota lanbiderentzako aproposa da. Egia da pertsonekin lanean aritzen garenontzat premiazkoa dela.*
- *Pertsonekin lan egiten dugu, hezitzaileak gara. Gu ongi ez bagaude, auto-estimarik ez badugu, zaila izango da txikiei segurtasuna eta beren buruarenganako*

konfiantza transmititzea.

- *Pertsonekin lana egin eta guregandik onena ematen saiatu behar dugulako.*
- *Umeekin lan egiten dugulako eta eredu izan behar garelako.*
- *Ez dut uste garrantzitsuagoa denik. Berdin berdin.*
- *Nire ustez norbere burua ezagutzea funtsezkoa da, lanbidea edozein izanda ere..*
- *Pertsonekin lanean dihardugunontzako ezinbestekoa da. Beste lanbideetarako, ordea, aproposa baina ez ezinbestekoa.*
- *Haur Hezkuntzan nortasuna eratzten delako eta helduaren esku-hartzea hortaz, adin honetan berebizikoa delako.*
- *Nik uste dut lanbide guztietan eta gizaki bezala garrantzitsua dela baina gure lanean bereziki. Umeak istorio berri bat hastera doaz eta ahal den neurrian epaitu gabeko heziketa bat merezi dute. Haientzat eredu garelako, gugandik ere ikasiko dutelako, emozioak bizi ta bideratzen lagundu behar diegulako. Lehen esan bezala, iraganak etorkizuna baldintzatzen duelako.*
- *Nire ustez lanbide guztietan da garrantzitsua zure buruaren analisi bat egitea.*
- *Umeekin tratatzen dugu haien etapa garrantzitsuenean. Kontuz, amets ez beteta daude ;)*
- *Umeekin egiten dugulako lan, beraien gida eta bidelagun bagara, ezinbestekoa da. Umeak ez dira pertsona helduak eta ahalik eta eredu hobereana eskaini behar diegu.*
- *Guztiontzako da garrantzitsua. Beharbada gurean gehiago, haurrekin gabiltzalako lanean, eta hauen izaerak gurekin bizitako bizipen askorekin zerikusia izango duelako. Baina uste dut guztiok ezagutu behar garela gu geu lehenengo, edozertarako, bizitzako edozein alderdirako.*
- *Denentzat da beharrezkoa.*
- *Uste dut pertsonekin lan egiten duen edozein pertsonak, bere burua ondo ezagutu behar duela: eman ahal duena jakiteko, mugak ezagutzeko, bokazioa edo beharra den desberdintzeko.*
- *Lanean hobetzeko, zure burua ezagutzen baduzu, emaitza aberasgarriagoa izango da.*
- *Denok egin beharko genuke.*
- *Gure pertsona eta lana oso lotuta daudelako. Norbere burua ondo ezagutu behar dugu umeekin egoteko.*
- *Pertsonak hezten eta eraikitzen baikaude.*

- *Pertsona sentikorrekin egiten dugu lan.*
- *Lanbide guztietan kontzientzia hori izan beharko genukeela uste dut, batez ere pertsonekin lan egiten den lanbideetan.*
- *Pertsonekin lan egiten dugulako eta pertsonen garapen emozionala, pertsonala, auto-estima, autonomia... gure eskuetan dagoelako.*
- *Guretzat oso garrantzitsua da gu geu ezagutzea, baina gizarte osoarentzat ezinbestekoa dela iruditzen zait.*
- *Lanbide guztietan garrantzitsua delako nork bere burua ezagutzea.*
- *Pertsonekin egiten dugulako lan.*
- *Denok egin beharko genuke.*
- *Lanbide askotan garrantzitsua izan daitekeen alor bat da, beraz, beste lanbide batzuetan kontuan hartzeko gaia izan daiteke, ez bakarrik hezkuntzan.*
- *Pertsonekin lan egiten dugunok gure buruarekiko kontrola izan behar dugu, eta hauek umeak izanda, are gehiago.*
- *Lehen esan dudan moduan, orokorrean auto-ezagutza guztiontzat garrantzitsua dela uste dut.*
- *Ez dauka zertan.*
- *Heziketa gizarte osoaren betebeharra da.*
- *Pertsonak formatzen eta hezten ditugulako.*
- *Haurrei buruz ditugun espektatibak haien auto-estimuan eragina handia dauka, gainera hau ikaskuntzarekin zuzenki lotuta dago.*

ANALISI PERTSONALA EGIN EZ DUTENAK

1) Zergatik ez duzu egin?

	Irakasle kopurua	Ehunekoa
Ez dut beharrezkoa ikusi.	13	%34,2
Beldurrarengatik.	8	%21,1
Pausua ez emateagatik.	16	%42,1
Beste bat (zehaztu zein).	1	%2,6

2) Egitea gustatuko litzaizuke?

	Irakasle kopurua	Ehunekoa
Bai	34	%89,5
Ez	4	%10,5

3) Irakasle bezala, *analisi pertsonala* egitea eta zure iraganaren istorioa ezagutzea garrantzitsua dela uste duzu?

	Irakasle kopurua	Ehunekoa
Bai	36	%94,7
Ez	2	%5,3

- Azaldu zure erantzunaren zergatia

Parte-hartzaileen hitzak

- *Horrek lagunduko dizu besteak hobeto ezagutzen eta zure lanean eragina izango duelako.*
- *Ondo dago beti.*
- *Bizi izandako guztiak eragina duelako gure bizitan.*
- *Bakoitzaren analisisa egitea oso inportantea iruditzen zait.*
- *Norberaren esperientziek oraingo izaera eta jakiturian eragina dutelako.*
- *Gure burua ezagutzen badugu, bestearen aurrean hobeto jakingo dugu aurre egiten*
- *Norbere burua ezagutzeak, besteei eskaintzen dioguna aberastu egiten du.*
- *Hobeto ulertzeko nortasuna, jokabideak, familiar rola... Zenbait gauza onartzeko eta beste batzuk, aldatzen saiatzeko. Horrela, besteak ere errazago ulertuko ditugu eta beraien errealitatea kontuan hartuko dugu.*
- *Irakasle bezala ez ezik, pertsona bezala oso gauza interesgarria iruditzen zait, norberak bere burua ezagutzea, bere jarrera eta jarduerak ezagutzeko eta arazoei aurre egiteko.*
- *Horrek gure jardunean eragina daukalako.*
- *Ikasteko, geure barrura begiratu behar dugulako.*
- *Irakasteko eran ere islatzen da gure iraganenean gertatu zena. Gertatutako gauzek nolakoak garen orain eta gure egiteko eretan eragina dutela uste dut.*
- *Asko ikasten da aurreko esperientzien hausnarketa egiten dugunean.*
- *Denak gudan eragina duelako.*

- *Ez dudalako beharrik ikusten.*
- *Denok daramagun motxilak, gauza onak eta txarrak dakartza.*
- *Ez irakasle izateagatik, beste edozein pertsonarentzat duen garrantzi berdina dauka.*
- *Nire ikasleak ezagutzeko, lehenengo, neure burua ezagutzea ezinbestekoa dela iruditzen zaidalako.*
- *Ikasleei haien burua ezagutzeko bide egokiak erakusteko aukera ematen digu.*
- *Gauza onak eta txarrak ikusteko eta aldatzeko.*
- *Aurrera egin ahal izateko, beharrezkoa da gure istorioa zein den ikustea, gaizki egindako gauzak ez errepikatzeko gehien bat.*
- *Iraganak orainaldia zentzu batez janzten duelako.*
- *Nire bizipenek eragina dutelako nire pertsonalitatean, izateko eta besteekin egoteko eran... Horren ondorioz, nire lanean ere.*
- *Denok ezagutu behar dugu nondik gatozen eta nora goazen.*
- *Ikasleei laguntzeko asmoz.*
- *Esperientziek osatzen gaituzte, beharrezkoa da buelta bat ematea gure bizipenei.*
- *Jokaera automatikoak ez izateko.*
- *Denok behar dugulako hausnartu gure iraganaren inguruan, eta horrek gure izateko moduan zein eragin duen.*
- *Bizitzan "jokatzeko" ezinbestekoa delako.*
- *Beti daukagulako zer ikasi.*
- *Era batean edo bestean, bizi izandako egoera guztiek uzten dizkigutelako markak.*
- *Hobetzeko guztiak balio du.*
- *Beharrezkoa da beti.*
- *Urteetan bizi izan duguna ezagutzeko eta horri buruz hausnartzeko. Horrek ikasleei ere lagunduko die-.*
- *Nire ekintzen zergatia ulertzea errazagoa izango delako eta, beraz, baita hauek aldatzea ere behar izatekotan. Ikasten jarraitzea beharrezkoa delako eta denetatik ikasten delako. Nor bere burua ezagutzea garrantzitsua delako.*
- *Nire bizipenek eta esperientziek nire irakaskuntzan zuzenean eragiten dutelako, baita baldintzatu ere.*
- *Gaur egungo nire egoeran garrantzia duelako.*

4) Beste lanbide bat duen pertsona batentzat baino garrantzitsuagoa dela uste duzu?

	Irakasle kopurua	Ehunekoa
Bai	20	%54,1
Ez	17	%45,9

- Azaldu zure erantzunaren zergatia

Parte-hartzaileen hitzak

- *Pertsonekin lan egiten dugulako.*
- *Pertsonen bizipenetan parte hartzen dugulako.*
- *Edozein lanbidean garrantzitsua ikusten dut.*
- *Nik uste edozein pertsonari ondo datorkiola.*
- *Beti delako ona gure burua ezagutzea.*
- *Harremana pertsonaletan oinarritzen diren lanbideetan.*
- *Aurrekoan erantzun dudak bezala, irakasleentzat funtsezkoa da.*
- *Beno gurean oso inportantea da, umeekin gaudelako, baina beste lanbide askotan be pertsonekin lan egiten da.*
- *Umeen hezkuntza gure eskuetan dagoelako.*
- *Irakasleok momenturo ari gara ikasten, zergatik ez ikasi gure buruari buruz.*
- *Pertsonekin lan egiten dugulako.*
- *Beharrak ez du lanbidearekin zer ikusirik, ongizate pertsonalarekin baino.*
- *Gure ikasleei ezin diegulako lagundu gure burua ez badugu ezagutzen.*
- *Guztientzat iruditzen zait garrantzitsua baina gure kasuan gehiago, haurrekin egiten dugulako lan. Euren etorkizuneko lehen adreiluak jartzen lagundu behar diegu.*
- *Nik uste du beste lanbideetan ere egin behar dela.*
- *Lankide guztietan garrantzitsua da.*
- *Umeeiko harremanerako ezinbestekoa delako.*
- *Gure lanbideak ez gaitu definitzen.*
- *Pertsonekin egiten dugulako lan, gure iraganeko zauriak eragina dutelako umeekin dugun harremanean.*
- *Denok egin beharko genukeelako.*
- *Pertsonekin ibiltzen garenontzako oso garrantzitsua delako norberak bere burua*

ezagutzea, besteekin duin izan gaitezen. Zertarako garen gai eta zertarako ez, errakuntzak onartzea...

- *Beste pertsona batzuen eredu garelako.*
- *Guztiontzako da garrantzitsu.*
- *Lanbide bakoitzak bere eskaera ezberdinak dituelako.*
- *Ez naiz ausartzen garrantzitsuagoa dela esaten, ziurrenik pertsona orok egin beharko genukeelako.*
- *Umeein lan egiten dugulako.*
- *Gure esku baitago etorkizuneko gizartearen balore etika eta moralak.*

OROKORRA

- 1) Irakasle bezala, *analisi pertsonala* egitea eta zure iraganaren istorioa ezagutzea garrantzitsua dela uste duzu?

	Irakasle kopurua	Ehunekoak
Bai	92	%95,8
Ez	4	%4,2

- 2) Beste lanbide bat duen pertsona batentzat baino garrantzitsuagoa dela uste duzu?

	Irakasle kopurua	Ehunekoak
Bai	49	%52
Ez	47	%48

4.2. Ikuspuntua

- 3) Aspektu hauen artean zeintzuk uste duzu garrantzitsuak direla irakasle baten *analisi pertsonalerako*? (aukeratu nahi dituzun guztiak)

Aspektuak	Irakasle kopurua	Ehunekoak
Irakaskuntza jarduna betetzeko arazoiez, nahiez eta errepresioez (aurreiritziez) jabetzea.	60	%62,5
Momentuan irakasle izateko	39	%40,1

duen interesa		
Bere buruari mota desberdinetako galderak planteatzeko gai izatea.	80	%83,3
Norberaren kontzientzia hartzea eta norberaren errealitatea ezagutzea	77	%80,2
Iraganeko esperientziak eta bizipenak esploratzea.	75	%78,1
Norberaren haurtzaroaren inguruan hausnartzea	40	%41,7

- 4) Zure ustez (zure esperientziagatik) hezitzaile lanbideak norberaren haurtzaroarekin aurrez aurre jartzea suposatzen du?

	Irakasle kopurua	Ehunekoa
Bai	76	%78
Ez	20	%22

- Zergatik?

Parte-hartzaileen hitzak

- *Eredua ez errepikatzeko.*
- *Bizitzen dugun esperientziak beti lagun gaitzake eta, nahi gabe, baldintzatu.*
- *Haurtzaroko lehenengo urteak erabakigarriak dira etorkizuneko ni-a eraikitzeko. Hezitzaile izatea bada hein handi batean urte horietara bueltatzea eta zuri bizi zenuen heziketa errepikatzea. Adibidez, haurtzaro guztia jotzen hezi baninduten, hezitzaile bihurtzen banaiz, haurrak jotzeko aukera egon daiteke; hezteko modua hori ezagutzen dudalako.*
- *Nire lanbidea ez dudalako nire haurtzaroarekin lotzen.*
- *Ikasleen paperean jartzen laguntzen dizulako, haien izaerak/jarrerak ulertuz.*
- *Umek bizi izaten dituzten egoerak zure buruarekin aldaratzeko aukera ematen dizu*
- *Norberaren haurtzaroa presente izatea eta bizi izandakoari aurre egitea,*

emozioetan eta afektuan oinarritutako erantzuna emateko.

- *Une oro haurtzaroa daukazulako aurrez aurre, bere magia eta miseriekin. Eta hain apurkorra hain zaindu beharrekoa dela konturatzen zarela... Ohartzen zara zu zenbat, nola izan zinen zaindua eta orduan, zure motxila emozionala ulertzen duzu. Une horretan onartu egiten zara zu zeu ere.*
- *Ezin dugu gure haurtzaroa ahaztu eta gogoratu eta kontutan eduki behar dugu bizi izandakoa, baina errealitatea desberdina da. Gu orain helduak gara, hezteko ardura dugu. Ez dut uste aurrez aurre jartzea denik.*
- *Agian, haurtzaro etapa horrekin, zehazki ez nago hain ziur, baina bai momentu oro, haurtzarotik hasita, orain arte bizi izandako esperientziek hezitzaile moduan aberastu nautela ziur nago. Eta izandako hainbat irakasle, haurtzarotik hasita, eredu izan ditudala naizen irakaslea izateko ere. Horregatik kezkatzen nau eredu ona izatearena eta horretan jartzen dut indarra. Eredu onak pertsona hobeak izaten laguntzen gaitu.*
- *Nire txikitako bizipenak oso garrantzitsuak dira ulertzeko nola sentitu daitekeen umea hainbat egoeraren aurrean.*
- *Batzuetan konparaketak egiten direlako.*
- *Haurren emozioek eta erantzunek nireak gogorarazten dizkidatelako.*
- *Askotan gainera, bizitzari birpasa bat eman behar diozulako.*
- *Bakoitzaren esperientziak, bai onerako bai txarrerako, bidean aurkitzen dira.*
- *Gure haurtzaroa oso garrantzitsua da eta gure errealitatea haurtzaroarekin oso lotuta dago. Bizi izandako gure esperientziak eragina handia dauka hainbat gauzetan: gure pertsonalitatea, gure beldurrak, gure mugak, gure erantzuteko modua...*
- *Bestearen lekuan ere jartzea delako.*
- *Norberaren esperientziak eragina duelako egiten duen oron.*
- *Orain zaren pertsona eta bizipena, beldurrak, nahiak... ondo ezagutzeko iragana hausnartu eta ezagutu behar duzulako. Emozioak bideratzen lagundu ahal izateko zureak aztertzen jakin behar duzu.*
- *Irakasle askok, haurtzaroan jasandako traumak ikasleekin ordaintzen dituztelako.*
- *Ikasleen buruan jartzen saiatzen naizelako.*
- *Gaur egun garenak edo ditugun bizipenak, eta hauen aurrean dugun jokatzeko erak, erabat erlazionatuta dagoelako gure gaur egungo izateko eta lan egiteko*

erarekin.

- *Ez nago ziur baina....bizitzaren edozein esparruan eragina izan dezakeenez....*
- *Bizitza orokorrean norberaren haurtzaro eta bizipenekin aurrez aurre jartzea suposatzen duelako.*
